

Marrazkia euskararen ikas/ irakaskuntzan: franelografoa

Enrike Larrarte

SARRERA

Hizkuntzen irakaskuntzan elementu grafikoa erreibindikatzeko joera aspaldikoa da. Gaurregun joera hori indarberritu egin da eta hizkuntz irakaskuntzarako grafiko ugari argitaratu da.

Ikaslea medio desberdinez balia daiteke eta bere esku behar ditu hizkuntza berria ikasten ari den momentuan. Nahiko astuna da berez hizkuntza berri bat ikastea eta barkaezina da dagoen medioen ugaritasunaz irakaslea ez baliatzea. Hainbeste ordu ikasten jardun behar duen ikasleari zor zaio lana atseginagoa egiten saiatzea. Medio tradizionalerik (irakaslearen ahotsa eta liburuaren irakurketa) beste bide batzu ireki zaizkie. Irakurketa, idazketa eta entzuteak betebeharrak handia dute hizkuntzen irakaskuntzan, baina beste medio batzu ere hor ditugularik, ezin utziko ditugu hauek bazterrean horrelako nekea eskatzen duen ikaskuntzan.

Gaurko kultura «irudiaren kultura» dela diote. Jendeak telebistaren aurrean ordu asko pasatzen du; kalera irten eta irudian oinarri duen iragarki pila batekin topo egiten dugu han eta hemen. Irudiaren kultura egunetik egunera nagusitzen ari zaigu. Liburuetan ere (kultura idatzia- ren exponenterik garbiena) gero eta irudi gehiago aurkitzen dugu. Badirudi gaurko

gazteei txikitandik hezurretaraino sartzen zaiela irudiaren kultura eta guk, urte batzu ditugunok, ez ditugun ohitura berriak hartzen ari direla beren hezkuntza bidean. Garbi dago, bestalde, askotan informazio berbera medio diferenteen bidez eman daitekeela.

Baina bada arriskurik ere. Badirudi aldi historiko bakoitzak baduela modan jartzen duen medio bat eta denok dakigu zernolako erraztasuna dugun modari jarraitzeko. Gaur irudiaren kulturen sartuta gaudela esaten dugunean, badirudi informazio guztiak medio horren bidez eman edo hartu behar ditugula. Ikuspegi hau nahiko zabaldua dagoela uste dut eta kontuz ibili behar dugu modak ematen diguna mitifikatzearekin. Badu informazio mota bakoitzak berari egokiago datorzion medioa.

Gaur, lurralde bat non kokatzen den irakurleari adierazteko, ezin hasiko gara esanaz: «Iparraldetik honako Estatu honekin ditugu mugak, hegoaldeetik beste honekin, hego-ekialdetik..., ekialdetik..., eta mendebaldetik halako ibai harekin». Berehala bururatuko zaio irakurleari zergatik ez diogun mapa bat aurrean jarri; nahikoa zela marrazki txiki bat eta askoz ere hobeto ulertuko zuela. Ezer kostatzen ez den medio bat ez erabiltzeagatik, irakurleari informazio garbia ez emateko arriskuan erori gara. Zeren mugak ipa-

rraldetik Estatu honekin dituela idatzi dugunean, izugarrizko abstrakzioa egin dugu; ez dakigu mugak lerro zuzena, hautsia edo kurboa jarraitzen duen; ez dakigu muga horrek meridianoarekin eratzen duen angelua 95 ala 107 gradutakoa den, edo iparraldeko mugak ekialdekoak baino haundiagoak diren, edo...

Baina Hegelek «Ideiari» buruz esaten dizkigunak norbait adierazi nahi badizkiogu, hobe dugu idatzi zuen liburua bere horretan ikasle gizarajo horri ematea, horretaz egin dezakegun pelikula bat eskaintzea baino. Lehen esan dugun bezala, informazio mota bakoitzak badu beretzat egokiagoa den medioa eta aldi eta egoera bakoitzean egokiena zein den aukeratzeko jakin beharko dugu. Gaurregun aukera ugari ditugunez, medio bakoitza ezagutzen ahalegindu gaitzen eta aukera dezagun egoera bakoitzean bide hobeak ematen dizkiguna.

Hemen marrazkiari buruz zertxobait esaten saiatuko gara. Lehen pauso bat besterik ez da izango. Etorriko dira noski besteak. Eta hasieratik esan beharra dago marrazkiaren munduko zati bat bakarrik aipatuko dugula.

Fanelografoa hartuko dugu gaitzat. Honetaz zertxobait argitzen saiatuko gara, ez bait dut uste honetaz, ez euskaraz ez erdaraz, gauza handirik aurki daitekeenik.

FRANELOGRAFOA

Beste lekuetan hizkuntzen irakaskuntzan aspalditik erabiltzen den medio hau ez dut uste Euskal Herrian, helduei euskarara irakasterakoan, asko erabili denik. Hori dela eta, oso egokia delakoan, medio honi buruz zertxobait idazten ausartu naiz.

Batzuk diotenez, fanelografoa ikusentzunezko medio bat dugu. Medio honetan entzuten den ahotsa irakaslearena (edo ikaslearena) da; ikusteko, berriz, irudi batzu ditugu horman edo arbelean jartzen den franelazko zapi batean. Hemen, HABEN, erabiltzen dugun eskemaren barruan kokatzeko, «ikustekoen» ar-

tean sartzen dela esan dezakegu, «Ikusentzunezko» termino hori irudia eta ahotsa medio mekaniko batean konbinaturik azaltzen direneneko medioentzat utziz, hau da, zinea, telebista, bideoa...

Medio honetarako franelazko zapi bat behar dugu. Zapi hau errektangularrizaten da eta kolorezkoa. Kolore iluneko hobe, bertan jartzen diren irudiak hobeto ikus daitezten zapi ilunean; normalean urdina, ia beltza den tela puska bat aholkatzen dute. Neurria aukeratzera-koan ikasgela nolakoa den ikusi behar da, baina tamaina standard bat eman behar badugu, zabaleran metro t'erdi eta altueran metro bat duen tela puska aukeratuko dugu. Tela hau arbelean edo horman bertan jarriko dugu, arbela balitz bezala erabiltzeko. Arbel horretan jartzeko irudi batzu behar ditugu, kartulinan marraztuak eta ebakiak. Irudi hauei franela-puska batzu edo antzeko zerbait ipiniko diegu atzekaldean. Behar ditugun irudiak, berriz, hauek dira: alde batetik pertsonaiak, animaliak eta gauzak errepresentatzen dituzten irudiak eta, bestetik, sinboloak.

Fanelografoaren emankortasuna

Ikusten denez, arbel baten aurrean gaude. Bertan irakasleak, irudiak lekuz aldatuz, elkarrekin trukatzeko edo irudiak beren artean konbinatuz, eguneroko bizitzaren egoerak aurkez ditzake; eta ikasleak esaldiak errepikatzen motibatu edo esaldi berriak egitera bultzatu, irakasleak aholkatu dituen esaldi motei jarraituz. Beraz, fanelografoa bai irakasleak bai ikasleak erabil dezake.

Fanelografoak badu bere abantaila: ikasleak klasean parte aktiboa har dezakeela. Honi esker, irakasleak edo ikasleak berak egoera berriak asma ditzake. Mugikortasun honek, gainera, ikaslearen esamolde konkretuak kontrolatzeko aukera ematen dio irakasleari eta askotan irakaslea hitz bat ere esatera behartu gabe. Bestalde, ikasleek, behin ikasprozesuan aurrera egin dutenean, bai ahoz eta bai idatziz nahi dituzten esaldiak

egiteko aukera dute ikusten dutenaren aurrean.

Franelografoaren emankortasuna hizkuntzen irakaskuntzan erabiltzen den irudi finkozko beste edozein ikus sistemarena baino askoz ere handiagoa da. Egoera edo interesgune bat duten hormirudiak (bai dendetan saltzen direnak bai irakasleak aurretik aukeratutako marrazki edo fotoekin presta ditzakeenak) edo liburu eta aldizkarietan aurki ditzakegunak edo sekuentziarik jarraitzen ez duten diapositibak ez dira hain emankorrak, medio hauek hizkuntzaren lantze mugikaitz eta deskriptibora bultzatzen bait gaituzte.

Bestalde, istorio laburrak kontatzeko erabiltzen diren diapositiba edo komikiak baino emankorrago da zenbait aspektutan; zeren medio hauek hizkuntza funtzional eta bizia emateko oso egokiak izanik ere, behin elkarrizketa bukatuz gero ez digute aukerarik ematen egoera berri eta lehengoak ez bezalakoak lantzeko. Diapositibaren kasuan eginkizuna textu jakin batera mugatzen da eta hortik aurrera, berez eta zuzenean, ez digute biderik irekitzen esaldi berriak sortzeko. Komikiaren kasuan, berriz, bidea irekiago geratzen da baina, dena dela, honek ere egoera mugikaitza ematen digu.

Franelografoa, ordea, hain sinplea izanik eta bideoak eta diapositibak eskatzen duten aparailu mekaniko eta elektronikorik ez eskatu arren, ikasleari behar den hizkuntza aldakorra eta, batez ere oso komunikatiboa erakusteko aukera ematen digu. Hizkera mota hau da, beraz, ikasleak behar duena, hizkuntza hori ongi menderatzen dutenen elkarrizketa kalean entzuten duenean erraz eta azkar ulertzeko. Esaldi hauek, bestalde, beharrezkoak izango dituzte ikasleek, kalean hizkuntza horretan hitzegin nahi badute. Egitura minimo hauek nahitaezkoak ditu elkarrizketan parte hartu nahi duenak.

Beste abantaila bat ere aipa genezake: beste edozein medio edo metodorekin batera erabil daitekeela alegia. Irakaslea, klasea era batera edo bestera eman, beti balia daiteke medio honetaz ikasleak hitzegera bultzatu nahi dituen bakoitzean.

Franelografoa oso emankorra da edozein irakaskuntz motatan, baina batez ere hizkuntzarenean, bai norik bere hizkuntzaren egitura edo formak zuzentzeko eta sendotzeko, bai bigarren hizkuntza ikasleko. Erabilgarria da, beraz, bai euskalduntzeko bai alfabetatzeko; bai hitzegin erazteko bai idaztarazteko.

Franelografoaren kodea

Lehen esan dugu franelografoan erabiltzen diren irudiak hiru motatakoak direla: pertsonaiak, gauzak (eta hemen animaliak ere sartuko genituzke) eta, azkenik, sinboloak.

Pertsonaien, animalien eta gauzen funtzioa ez da ilustratiboa, hau da, ez dira hitza eta irudia elkartzeko egin, hiztegia erakusteko asmotan (eginkizun honetarako badaude beste medioak, askoz ere hobeak), esaldiak egiteko baizik, egiturak erakusteko, irakasleak franelografoan jarri dituen irudiak erreferentzi bezala hartuz, ahoskatzen dituen esaldi motak ikasleak ikas edo beragana ditzan. Aurkezpenak egiteko erabil dezake irakasleak, edo ikasleek egitura batzu menderatzen dituztenean, era libreagoan, ariketak egiteko. Kasu batean zein bestean, esaldia izango da helburu, ez hitz soila.

Baina medio pedagogiko guztietan, komunikazioa lortzeko, nolabaiteko isileko hitzarmen bat dago irakaslearen eta ikaslearen artean zeinu batzu erabiltzerakoan (entzunezkoak, keinuzkoak, grafiakoak edo ikonografikoak). Franelografoak ere antzeko kodea suposatzen du, ikasleak aurretik ondo ezagutu behar duen kodea: irudiaren (pertsonaiak, gauzak, sinboloak) eta franelografoaren gune diferenteek duten esanahia argitzen duena (hau da, franelografoan irudi bat behaldean edo goialdean, ezker aldean, eskuinean edo erdian jartzeak zernolako esanahiak ezartzen dizkion irudiari).

Irudiak zeinu bezala erabiltzen dira, zeinu linguistikotik bezala. Jar dezagun adibide bat esandakoa hobeto ulertzeko: trafikorako erabiltzen diren zeinuak mundu guztiak onartu ditu eta, azken finean, zeinu grafikoaren bidez emandako

kontzeptu konplexu batzuren multzoa besterik ez da, nahiko abstraktoa gainera, sinpletasun formalez emana, kalean dabilenak erraz eta agudo konpreni dezan. Garbi dago honelako kode konplexua aurrez ikasi egin behar dela, ez dela intuitiboki konprenitzen den zerbaite. Fanelografoaren kasuan, ezin gaitzeko antzeko kode grafiko konplexuan oinarritu; askoz ere errazagoa eta ia intuitiboki ulertuko den zeinu-kode baten beharrean aurkitzen gara.

Irudi multzo mugatu batekin egoera diferente asko eman beharrean aurkitzen garelako kontutan izanik, jarriko ditugun irudiak ez dira ez oso konplexuak eta ez oso errealistak izango, orduan ez bait lirateke zeinu izango. Zenbat eta sinpleago izan irudia, orduan eta adierazkorragoa. Bestalde, zenbat eta xehetasun gehiago izan irudiak, orduan eta itxiagoa gertatuko da beraren eremu semantikoa. Askotan, irudiari xehetasun asko erantsiak ez du ulergarriago egiten, eta are gutxiago irudiak nahiko txikiak direla eta franelografoa ikaslea dagoen lekutik nahiko urruti jarri dugula kontuan harturik.

Horrexegatik, erabiltzen diren irudiak normalean zuriak izaten dira, franelaren kolore ilunarekiko kontrastez ondo ikusteko modukoak. Eta irudi horri kolorearen bat eman nahi diogunean beharrezkoa zaigulako, kolorezko triangulu edo zirkulu txiki bat jarriko dugu irudiaren aldamenean.

Dena den, hemen tamaina batzu, kolore batzu... ematen ari gara, baina guzti hau nahiko erlatiboa da. Irakasleak berak ikusi beharko du kasu bakoitzean zer behar duen, eta franelografoaren irudiak behar horietara moldatuko ditu. Bide bat ematen ari gara (ahal dugun irekiena), baina honek ez du esanahi beste biderik ez dagoenik. Esate baterako, irakasle batek franelografoa egitura oso konkretu batzutarako sarri erabiltzeko asmoa bada, ez ditu irudi eta sinbolo asko beharko eta, beharbada, irudi hain sinpleak erabili ordez nahiago izango ditu egoera konkretuagora mugatutako irudiak (ez hormirudi mugikaitz batek adierazten duen

egoera bakarrari egokituko zaizkionak, baina ezta edozein egoetarako balio dutenak ere).

Horrelakoetan aproposak izango ditu edozein aldizkaritan aurkitzen diren argazki edo marrazkiak, batez ere aurpegiak. Har ditzake aurpegi batzu, moztu eta pertsonaien irudietan erantsi, honela ikasleak gehiago motibatzen dituela ikusten bada. Aldizkarietako argazkiak aukera handia eskainiko digute honelako lanetan. Jakin dezagun, bada, aukera hau hor daukagula eta emankorra izan daitekeela.

Baina jo dezagun aurrera eta jarrai dezagun sinpletasuna bilatzen. Erakutsi nahi dugun esaldia irudi gutxiarekin adierazten ahaleginduko gara. Gainera, esaldi bat ematen ari garen unean, horretarako behar ditugun irudiak bakarrik egongo dira franelografoan jarrita. Aurreko esaldikoak ordurako kendu egin beharko ditugu, ikaslearen buruan nahasketara sor ez dadin. Irakasleak ahoskatzen duen esaldiaren eta franelografoan jarri dituen irudien artean ahal den loturarik handiena sortzen ahaleginduko da.

Hau dela eta, irudiak jartzerakoan zein ordena jarraitu behar dugun ere kontutan eduki beharko dugu. Kontzeptuak ahoskatzen ditugun heinean jarriko ditugu irudiak eta ahoskatzea bukatzen dugun unean bukatuko da irudiak jartzea ere. Adibidez: «gizonak fabrika lan egiten du» egitura irakatsi nahi badugu, aurrena jarriko dugun irudia gizonarena izango da, gero fabrikarena eta, azkenik, lana sinbolizatzen duena.

Dena dela, batzutan lanak izango ditugu ordena hau errespetatzen eta orduan irakasleak kriterio garbia eduki beharko du eta ezin ahaztuko du kate fonetiko bat osatzen duten elementuek kriterio logiko bati jarraitzen diotela eta, ondorioz, irakasleak ahal duen logikarik handienaz jokatu beharko duela, irakatsi nahi duena ahal duen garbien azalduz.

Eta honetaraz gero, zer esan franelografoko guneai buruz? Edo bestela esanda, non jarri behar ditugu irudiak franelografoan? Ezin ahaztu dugu franelo planoan dela eta sakoneren dimentsioa


falta zaiola. Hurbiltasuna eta urruntasuna adierazteko konbentzionalismo baten beharrea gaude. Gaurregun urruntasuna eta hurbiltasuna adierazteko perspektibaz baliatzen gara eta perspektiba legerik garrantzitsuenetako bat zera da: «urruti dagoen gauza bertan dagoena baino txikiagoa irudikatuko dugu; eta zenbat eta urrutirago egon, orduan eta txikiagoa irudikatzen da». Koadro bat pintatzen dugunean, hauxe egiten dugu. Baina, lehen esan dugunez, marrazkiak ahal den sinpleenak izango dira eta sinboloek bezala jokatzeko dute, hau da, polibalenteak dira. Gauza bat hurbil dagoela adierazteko ezin dezakegu irudi bat eduki, beste bat urruti dagoela adierazteko eta, azkenik, beste hirugarren bat oso urruti dagoela adierazteko. Irudi pila bat beharko genuke horretarako, hiru aldiz biderkatu beharko genituzke irudi guztiak eta hau egitea gehiegizkoa da. Hau dela eta, beste konbentzionalismo baten aurrean gaude.

Elkarrizketa bat ematen ari bagara, hizketan ari diren bi pertsonaien irudiak 7. eta 9. laukietan jarriko ditugu. Eta elkarrizketaren gaia errepresentatzen duen irudia bi pertsonaien artean jarriko dugu (8. laukian). Elkarrizketaren gaia pertsonaia hauetariko baten zerbait bada, beraren aldamenean jarriko dugu (hau da: gauza hori 7 laukian dagoen pertsonaiarena bada, gauza horren irudia 7. eta 8. laukien artean jarriko dugu. Bietariko batena ez bada, 8. laukian).


Bestalde, gauza hori «HEMEN» dagoela adierazi nahi badugu, 8. laukian jarriko dugu; «HOR» badago, berriz, 5. laukian eta «HAN» badago, 2. laukian. Ikusten denez, gaur ezagutzen ditugun perspektiba-legeak ezagutu baino lehen antzinako artistek egin zuten modura joka dezakegu: «zenbat eta urrutirago egon gauza bat, orduan eta gorago jarriko dugu, eta zenbat eta bertarago egon, orduan eta beherago».

Eman dezagun franelografoa bederatzi zatitan banatzen dugula.


1	2	3
4	5	6
7	8	9



hemen



hor



han


Era honetako konbentzionalismoekin jokatu beharko dugu. Irakasleak medioa erabiltzen duen heinean ikusiko dituharrak, eta ahal duen soluziorik hobeenak ematen jakingo duelakoan gaude.

Sinboloaren erabilera


Ez dago dudarik pertsonaiak eta gauza konkretuak (hau da, substantiboak) irudi bidez garbi adieraz ditzakegula; baina gauza inmaterialak (hau da, adjetiboak

edo ekintzak) adierazi nahi dutugunean sortzen dira problemak. Hau dela eta, irakasleak aditza, adjetibo kalifikatzaileak eta adberbioak mimika eta entonazioaren bidez adierazten saiatu beharko du.

Baina, dena dela, sinboloak ere lagungarri onak izango ditu. Hona hemen adibide bat:



gizona ez doa etxera



gizona etxera doa?

Irakasleak egitura bat irakatsi nahi duenean, zer egingo duen ondo prestatuko du aurrez, behar dituen irudi eta sinboloak garaiz aukeratuz. Komeni da irakasleak zer, non eta zein ordenatan jarri behar duen aurretik praktikatzea; eta explikazioa zernolako entonazio eta mimikarekin lagunduko duen ere bai, irudiaren bidez oso argi geratu ez diren kontzeptuak argitzeko.

Egia da medio honen erabilpenak klasea prestatzea eskatzen duela. Baina hau ez da medio honen arazoa bakarrik; medio guztiek eskatzen dute prestaketa.

Irudiak nola aukeratu


Ez nuke lantxo hau bukatu nahi irudien aukeraketaz zenbait ohar egin gabe:

— Pertsonaien irudiak aukeratzeak arazo haundiagoak sortzen ditu gauzen irudiak aukeratzeak baino. Bai pertsonak bai gauzak alderdi askotatik ikus daitezke, irudi diferente asko sortuz. Baina pertsona mugitu egiten da eta, ondorioz, hartzen dituen formak biderkatu egiten dira.

— Pertsonaien irudiak aukeratzeraoan, aurrez-aurre edo soslai ikusten direnak aukeratu behar dira eta ez besteak.

— Ez dago proportzioak mantendu beharrik. Gauza proportzioz txikia bada, beldurrik gabe tamaina haundiko bat aukeratu.

- Alferrikako elementuak baztertu.
- Pertsonaia baten irudi adierazkor bat nahi bada, kontutan izan adierazkortasuna gorputz guztiari dagokiola, baina atalik adierazkorrena aurpegia dela.
- Nahiz eta aurpegian bertan ere elementu adierazkor asko egon, adierazkorrenak bekaina eta ahoa dira.
- Hona hemen oinarrizko espresioak:

— expresiorik eza (neutroa): 

— alaitasuna: 

— haserrea: 

— tristura: 

— Bekainaren eta ahoaren marrak areagotuz edo beren artean konbinatuz, espresio berriak sortuko ditugu.

EL DIBUJO EN LA ENSEÑANZA/APRENDIZAJE DEL EUSKARA: EL FRANELOGRAMA

Teniendo en cuenta la diversidad de medios existentes hoy en el campo de la enseñanza de lenguas, se trata de dar una visión general de un medio concreto: el franelograma.

Es éste un medio visual que tiene como soporte un trozo rectangular de franela al que se adhieren unas figuras de cartulina que representan personas, objetos y símbolos. Actúa como una pizarra o lámina ilustrada grande en el que cambiando, sustituyendo o combinando debidamente las figuras entre sí, se van creando situaciones diferentes.

Su sencillez y simplicidad lo dotan de una serie

de ventajas con respecto a otros medios; siendo su utilidad muy grande en la enseñanza de estructuras gramaticales fundamentalmente.

Al tener que responder con unas figuras limitadas a situaciones múltiples, nace la necesidad del establecimiento de un código no complicado que el alumno lo comprende de forma prácticamente intuitiva.

Las dificultades que pueda crear lo limitado de las figuras será suplido por los gestos, mímica y entonación del profesor.

LE DESSIN DANS L'ENSEIGNEMENT/APPRENTISSAGE DE L'EUSKARA: LE FLANELOGRAMME

Etant donné la diversité des moyens actuels pour l'enseignement des langues, nous voulons offrir ici une vision générale d'un outil concret: le flanelogramme.

L'outil en question est un média visuel dont le support est un morceau rectangulaire de flanelle sur lequel on fixe des poupées en carton qui représentent des personnages, des objets et des symboles. Son rôle est semblable à celui d'une ardoise ou d'une grande planche illustrée où des situations différentes sont créées en interchangeant, substituant, combinant comme il faut les poupées entre elles.

Sa simplicité présente une série d'avantages par rapport à d'autres méthodes. A cet égard, il faut souligner sa très grande utilité dans l'enseignement des structures grammaticales.

Le besoin de répondre à des situations multiples avec un nombre limité de poupées, rend nécessaire l'établissement d'un code qui n'est pas compliqué et que l'élève saisit presque intuitivement.

Les difficultés qui peuvent surgir du nombre limité de poupées seront surmontées au moyen de gestes, mimiques et de l'intonation du professeur.

THE USE OF THE «FRANELOGRAMA» IN THE TEACHING AND LEARNING OF THE BASQUE LANGUAGE

Bearing in mind the variety of methods which exist in the field of language tuition, a general idea will now be given of one specific method —the «franelogram».

This is a visual method which has as its base a rectangular piece of flannel to which cardboard shapes or figures, representing people, things or symbols can be stuck. It works in the same way as a blackboard or a large illustrated wall chart and by combining or interchanging the figures different situations are created.

The simplicity of this method has several

advantages over other methods, being extremely useful in the teaching of basic grammatical structures.

As one has to cover a variety of situations with a limited number of figures, it is necessary to establish a fairly simple code which the pupil can understand almost by intuition.

The difficulties which the limitations of the figures can create can be compensated for by the teacher's gestures, tone of voice and mime.